



Euskara Abian

Lehen Hezkuntzarako 2. mailarako Euskara Abian liburua Zubia Editoriala, S. L.ren eta Santillana Educación, S. L.ren Hezkuntza Argitalpenetarako Sailean **Joseba Santxo Uriarteren** eta **Teresa Grence Ruizen** zuzendaritzapean sortu, diseinatu eta gauzaturiko talde-lana da.

Liburu honen prestatze- eta argitaratze-lanean honako talde honek esku hartu du:

TESTUA

Idoia Aranberri
Joseba Santxo
Ainhua Basterretxea

IRUDIAK

Gorka Aranburu
Alex Macho
Enrique Morente
Alex Orbe

EDIZIOA

Ainhua Basterretxea
Joseba Santxo

PROIEKTUAREN ZUZENDARITZA

Joseba Santxo
Maite López-Sáez

GINARRIZKO GAITASUNAK

Liburuan zehar, **HEZIBERRI**ren araberrako oinarrizko gaitasunen ikurrak ikusiko dituzu zenbait jardueraren ondoan. Ikur horiek kasu bakoitzen zer gaitasun lantzen den adierazten digute.

ARLOKO GAITASUNAK



Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako gaitasuna



Matematikarako gaitasuna



Zientziarako gaitasuna



Teknologiarako gaitasuna



Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna



Arterako gaitasuna



Mugimendurako gaitasuna

ZE HAR-GAITASUNAK



Hitzez, hitzik gabe eta era digitalean komunikatzeko gaitasuna



Ikasten eta pentsatzen ikasteko gaitasuna



Elkarbizitzarako gaitasuna



Ekimenerako eta ekintzaile-sena garatzeko gaitasuna



Izaten ikasteko gaitasuna

Aurkibidea

Lehen hiruhilekoa

1	Urtebetetze-jaia	6
2	Txangoa	22
3	Parkean jolasean	38
4	Elurretan hirian	54
5	San Tomas azoka	70
	Lehen hiruhilekoaren berrikusketa	86

Bigarren hiruhilekoa

6	Herriko plaza	90
7	Zomorroi begira	106
8	Inauteriak kalean	122
9	Mendia udaberrian	138
10	Gaztandegia	154
	Bigarren hiruhilekoaren berrikusketa	170

Hirugarren hiruhilekoa

11	Ur-kirolak	174
12	Iragarki-taula	190
13	Berriz erabili	206
14	Ekaingo koba	222
15	Oihalezko txoriak	238
	Hirugarren hiruhilekoaren berrikusketa	254



Edukien mapa

Unitateak	Irakurgaiak	Hizkuntzaren erabilera	Entzun dezagun!	
1 Urtebetetze-jaia <i>Zorionak zuri</i> ▶▶ 6	Kontakizuna: <i>Pippi Galtzaluze dendaz denda</i> ▶▶ 8	■ Izenak 12	■ <i>Bi asto</i> ▶▶ 14	
2 Txangoa <i>Bai txango txundigarria</i> ▶▶ 22	Ipuina: <i>Itsasoa etxe barruan</i> ▶▶ 24	■ Mugatua eta mugagabea 28	■ <i>Sekulako ikuskizuna</i> ▶▶ 30	
3 Parkean jolasean <i>Lagun berriak</i> ▶▶ 38	Ipuina: <i>Doministikuka</i> ▶▶ 40	■ Erakusleak 44	■ <i>Zer gauza ona kirola!</i> ▶▶ 46	
4 Elurretan hirian <i>Elur-borroka</i> ▶▶ 54	Ipuina: <i>Kapela-jasa</i> ▶▶ 56	■ Zenbatzaileak 60	■ <i>Zuhaitza eta urtaroak</i> ▶▶ 62	
5 San Tomas azoka <i>Abere artean</i> ▶▶ 70	Azalpen-testua: <i>Badator Olentzero</i> ▶▶ 72	■ Izenordainak 76	■ <i>Gabonetako jaialdia</i> ▶▶ 78	
LEHEN HIRUHILEKOAREN BERRIKUSKETA 86-88. Entzungaia: <i>Bai egun zoragarria!</i> ▶▶				
6 Herriko plaza <i>Alkatearentzako gutuna</i> ▶▶ 90	Kontakizuna: <i>Ametz-saltzailea</i> ▶▶ 92	■ Izenondoak 96	■ <i>Maskota bitxia</i> ▶▶ 98	
7 Zomorroi begira <i>Etzerako modukoa</i> ▶▶ 106	Herri-ipuina: <i>Tidalik igela</i> ▶▶ 108	■ Izan aditza 112	■ <i>Astoa eta txakurtxoak</i> ▶▶ 114	
8 Inauteriak kalean <i>Gora Inauteriak!</i> ▶▶ 122	Ipuina: <i>Presaka zebilen gizona</i> ▶▶ 124	■ Ukan aditza 128	■ <i>Zezensuzkoa</i> ▶▶ 130	
9 Mendia udaberrian <i>Mendi-buelta</i> ▶▶ 138	Herri-ipuina: <i>Baobab zuhaitzaren ipuina</i> ▶▶ 140	■ Nor eta nork 144	■ <i>Nartzisoren ipuina</i> ▶▶ 146	
10 Gaztandegia <i>Familia gaztagilea</i> ▶▶ 154	Ipuina: <i>Moztailea eta zurgina</i> ▶▶ 156	■ Aditzak 160	■ <i>Otsoaren ogia</i> ▶▶ 162	
BIGARREN HIRUHILEKOAREN BERRIKUSKETA 170-172. Entzungaia: <i>Amonaren urtebetetzea</i> ▶▶				
11 Ur-kirolak <i>Zuhatzara goaz!</i> ▶▶ 174	Herri-ipuina: <i>Galtzagorriak</i> ▶▶ 176	■ Aditza eta denbora 180	■ <i>Ura aurrezteko aholkuak</i> ▶▶ 182	
12 Iragarki-taula <i>Jertse galdua</i> ▶▶ 190	Kontakizuna: <i>Telebista ez dabil!</i> ▶▶ 192	■ Bai eta ez 196	■ <i>Goazen zinemara!</i> ▶▶ 198	
13 Berriz erabili <i>Garbi jokatu</i> ▶▶ 206	Ipuina: <i>Midas erregea</i> ▶▶ 208	■ Nor, nork, nori 212	■ <i>Zerraren sekretua</i> ▶▶ 214	
14 Ekaingo koba <i>Antzinako margoak</i> ▶▶ 222	Herri-ipuina: <i>Ama Lurra</i> ▶▶ 224	■ Noren, norekin, nongo 228	■ <i>Bidean galduta</i> ▶▶ 230	
15 Oihalezko txoriak <i>Kometak hegan</i> ▶▶ 238	Ipuina: <i>Oporrak sukaldian</i> ▶▶ 240	■ Non, nondik, nora 244	■ <i>Ikasturte amaierako txangoa</i> ▶▶ 246	
HIRUGARREN HIRUHILEKOAREN BERRIKUSKETA 254-256. Entzungaia: <i>Miarritzeko Itsas museoan</i> ▶▶				

Abian 2

Goazen abestera!	Egiten Jakin	Ondo idatzi Ortografia	Hitza jolas	Amaierako jarduerak
■ <i>Txantxibirin</i> 15	■ Pertsonak deskribatzea 16	■ Letra larriak 18	■ Igarkizunak eta olerkia 19	■ <i>Neska misteriotsua</i> 21
■ <i>Balearen bertsoak</i> 31	■ Tokiak deskribatzea 32	■ Hitzen zatiketa 34	■ Olerkia eta bertsoa 35	■ <i>Etxeke leihotik</i> 37
■ <i>Korrika</i> 47	■ Laburpenak egitea 48	■ <i>H</i> letra erakusleetan 50	■ Bertsoa eta esaera zaharra 51	■ <i>Bizikletan adi-adi</i> 53
■ <i>San Simon eta San Juda</i> 63	■ Kartela egitea 64	■ <i>H</i> letra zenbakietan 66	■ Olerkia eta igarkizuna 67	■ <i>Etxerako lan berezia</i> 69
■ <i>Hator, hator!</i> 79	■ Olentzerori gutuna idaztea 80	■ <i>X</i> letra 82	■ Olerkia eta aho-korapiloa 83	■ <i>Gabonak Errusian</i> 85
■ <i>Markosen txerria</i> 99	■ Sukaldaritzako errezetak idaztea 100	■ <i>S</i> letra 102	■ Olerkia eta igarkizunak 103	■ <i>Bizkotxoa egiten</i> 105
■ <i>Baserrian txakurra</i> 115	■ Animaliak deskribatzea 116	■ <i>Z</i> letra 118	■ Igarkizunak, esaera zaharra eta aho-korapiloa 119	■ <i>Elmer, koloretako elefantea</i> 121
■ <i>Pasaiaiko plazatik</i> 131	■ Ibilbideak azaltzea 132	■ <i>X, S, Z</i> letrak 134	■ Olerkiak 135	■ <i>Herri lasterketa</i> 137
■ <i>Loretxoa</i> 147	■ Arauak azaltzea 148	■ <i>r</i> eta <i>rr</i> letrak 150	■ Igarkizunak eta olerkitxoa 151	■ <i>Txangoa</i> 153
■ <i>Alferraren astea</i> 163	■ Objektuak deskribatzea 164	■ <i>tx</i> letra-multzoa 166	■ Olerkia eta igarkizunak 167	■ <i>Autobusaren zain</i> 169
■ <i>Errota zahar maitea</i> 183	■ Elkarrizketak egitea 184	■ <i>Ts</i> letra-multzoa 186	■ Bertsoak eta olerkia 187	■ <i>Telebista-saioa</i> 189
■ <i>Euskal Herrian euskaraz</i> 199	■ Albisteak idaztea 200	■ <i>Tz</i> letra-multzoa 202	■ Olerkitxoa eta agurtzeko esaerak 203	■ <i>Albiste bitxia</i> 205
■ <i>Guretzat berdin dira</i> 215	■ Jarraibideak azaltzea 216	■ <i>Tx, ts, tz</i> letra-multzoak 218	■ Txistea eta igarkizunak 219	■ <i>Lorezain-lanetan</i> 221
■ <i>Araban bagare</i> 231	■ Biografia idaztea 232	■ <i>H</i> bokal artean 234	■ Olerkitxoa eta aho-korapiloa 235	■ <i>Jose Migel Barandiaran</i> 237
■ <i>Agur, Zuberoa!</i> 247	■ Posta-txartelak idaztea 248	■ <i>S, x, z, tx, ts, tz</i> letrak 250	■ Olerkiak 251	■ <i>Udako planak</i> 253

1

Urtebetetze-jaia



Mintzamena

- Noren urtebetetzea ospatzen ari dira? Zenbat urte bete ditu?
- Zertan ari dira? Zer dago jateko?
- Gustuko dituzu urtebetetze-jaiak? Zergatik?
- Nola ospatzen duzu zuk zure urtebetetzea? Norekin?

HIZTEGITXOA

ospatu	gonbidapen
kandela	gonbidatu
putz egin	zoriondu
apaingarri	zorion-txartel
puxika	opari

Entzundakoaren ulermena 🗣️

1 Entzun *Zorionak zuri* elkarrizketa eta erantzun.

- Zer eskatu du Pellok kandela itzaltzean?
- Nola du izena bere txakurrak? Zer nahi du?
- Zer gertatzen zaio txakurrari gozoa janez gero?
- Tarta zati handia emango al diote?



Irakurmena 📖

2 Irakurri eta erantzun.

- Nork eta zertarako idatzi du alboko gonbita?
- Nor gonbidatu du?
- Non eta noiz egingo du jaia? Zer egongo da han?
- Zure ustez, zer beste behar da ondo pasatzeko?

Kaixo, Terese!
Datorren larunbatean, 7 urte
beteko ditut, eta ospatzeko,
jaitxo bat antolatu dugu
etxean, arratsaldeko 6etan.
Merienda, tarta eta jolasak
izango ditugu.
Etorri! Ondo pasatuko dugu!
Pello

3 BALIOETAN HEZTEA. Lagunekin ondo pasatzen dugu.


- Zer nahiago duzu, bakarrik egon ala lagunekin egon? Zergatik?
- Zer egiten duzu lagunekin zaudenean? Ondo pasatzen al duzue?

➡ EGITEN JAKIN

🗨️ Pertsonak deskribatzea

Seguruenik, behin baino gehiagotan tokatu zaizu zure lagun bat nolakoa den esatea. Bada, oraingo honetan ere horixe izango da zure zeregina: pertsonak nolakoak diren esan. Baietz ondo egin!





Pippi Galtzaluze dendaz denda 📢

Pippi bakar-bakarrik bizi da Mozolomendi izeneko etxean. Baina ez pentsa gaizki bizi denik. Ezta hurrik eman ere! Nahi duenean oheratzen da, eta nahi duenean joaten da eskolara.

Pippik bi maskota ditu: zaldi bat eta tximino bat, baita bi lagun ere: Tommy eta Annika. Maleta zahar bat ere badu, urrezko txanponez betea.

Urrezko txanpon horietako batzuk hartuta, erosketak egitera joan da gaur Pippi, Tommyrekin eta Annikarekin batera. Denda asko daude hirian eta gaur jendez beterik daude denak. Haur batzuk gozoki-dendara joan dira. Baina haur gehienek ez dute dirurik eta kanpoan daude, **erakusleihoko** gauza gozoei begira.

–Sartuko al gara gozoki-denda honetan? –galdetu dio Tommyk Pippiri.

–Bai, goazen –erantzun du Pippik. Eta barrura sartu dira.

–Eman hemezortzi kilo pasteltxo –esan du Pippik, urrezko txanpon bat erakutsiz.

Saltzailea azkar-azkar hasi da pasteltxoak poltsa handietan sartzen. Baina Pippik hirurogeita hamabi karamelu-poltsa, txokolatezko ehun eta hiru barratxo, eta gozoki gehiago eskatu dizkio gero.

A zer **litxarrerria**-festa egin duten! Pippik denda kanpoan zeuden haur guztiekin banatu du erositakoa eta ez da ezer ere sobera geratu.

–Goazen alboko dendara! –esan du Pippik.

Eta jostailu-dendan sartu dira denak. Pippik eskua bete urrezko txanpon atera du sakelatik, eta haurrek jostailuak erosi dituzte. Pippik ez du ezer erosi, baina denda ia hutsik geratu da.

Dendatik alde egin baino lehen, Pippik **txilibitu** bana erosi die haurrei. Kanpoan, han hasi dira denak txistu eta txistu, zarataka.

–Ixo! –esan die udaltzainak oso garratz –. Debekatuta dago kalean txilibitua jotzen ibiltzea! Zoazte zeuen etxeetara.

Eta ume guztiak etxera joan dira, poz-pozik, erositako jostailuekin jolastera.

Astrid Lindgren (moldatua)

HIZTEGIA



erakusleiho: dendan salgaiak kale aldera erakusteko leihoa.



litxarrerria: gozokia edo gauza gozoa.



txilibitu: putz eginda, txistu egiteko balio duen tresna.



1 Erantzun galderei.

- Non bizi da Pippi Galtzaluze? Norekin bizi da?

- Noiz oheratzen da Pippi? Noiz joaten da eskolara?

- Nola dute izena Pippiren lagunak?

★ 2 Ordenatu eta azaldu. Nondik nora ibili dira Pippi eta haren lagunak?



3 Markatu egia direnak.



Pippik urrezko txanpenez betetako maleta bat du etxean.



Txanpon batekin ehun eta hiru kilo pasteltxo eta gozoki asko erosi ditu.



Jostailu-dendan pilota bat erosi du beretzat.



Umeei txilibitu bana erosi die eta denak txilibitua jotzen hasi dira.



Udaltzainak errietan egin die eta etxera bidali ditu umeak.



★ 4 Plan ona iruditzen zaizu Pippi eta haren lagunena? Nola hobetuko zenuke?

IPUINETIK HARAGO

5 Irakurri eta antzeztu.

AMA: Baina nondik atera dituzue jostailu horiek?

ANNIKA: Pippik oparitu dizkigu, ama! Jostailuak erosi ditu herriko ume guztientzat.

AMA: Eta nondik atera du, bada, Pippik dirua?

ANNIKA: Urrezko txanponez beteriko maleta bat dauka.

TOMMY: Bai. Gauza harrigarri asko ditu Pippik etxean.

AMA: Goazen afaltzera eta kontatu dena.

TOMMY: Ez gara gose. Pasteltxoak eta gozokiak ere erosi dizkigu Pippik.



6 Kontatu gertaturikoa, Tommy edo Anika izango bazina bezala.

HITZEN HABIA

7 Osatu denden izenak, adibidean bezala.

Gozokiak saltzeko denda:

Jostailuak saltzeko denda:

Liburuak saltzeko denda:

Jantziak saltzeko denda:

Altzariak saltzeko denda:

8 Aukeratu erantzun zuzena. Zer esan nahi du esapide honek?

Ezta hurrik eman ere!



Jakina baietz!



Ezta pentsatu ere!

HIZKUNTZAREN ERABILERA

1 Irakurri eta azpimarratu izenak.



2 Osatu txartela izenekin eta marraztu zeure burua.

Nire izena: _____

Nire amaren izena: _____

Nire aitaren izena: _____


Nire kalearen izena: _____

Nire herriaren izena: _____

Sinadura: _____



3 Idatzi gauza hauen izenak.



4 Irakurri eta osatu zerrendak testuko izenekin.

Xabier eta Maider Lizardi ikastetxean dabilta ikasten.

Maiderrek gaur borragoma, koaderno eta baloia eraman ditu eskolara.

Xabierrek, berriz, kutxatila, betaurrekoak eta ipuina eraman ditu.

Pertsona- eta leku-izen zehatzak	Gauza-izen orokorrak

5 Idatzi. Zer daramazu zuk eskolako bizkar-zorroan?

IZENAK

Pertsona eta leku zehatzen izenak letra larriz hasten dira:
Asier, Bilbo, Bidasoa.

Gauza orokorren izenak letra xehez hasten dira:
mutila, hiria, ibaia.

ENTZUN DEZAGUN!



1 Erreparatu irudiei eta deskribatu. Ezagutzen dituzu bertako pertsonaiak?



2 Entzun *Bi asto* testua eta aukeratu erantzun zuzenak. 🔊

■ Zer gertatu zitzaion Pernando Amezketarrari astoarekin?

☐ Galdu egin zuen.

☐ Ahaztuta utzi zuen.

■ Zer esan zion emazteari?

☐ Egia esan zion.

☐ Gezurra esan zion.

■ Non zegoen Pernandoren astoa?

☐ Tolosan.

☐ Etxeko ukuiluan.

3 Markatu. Zer esan zion Pernandok emazteari?

☐ Astoak min hartu zuela eta horregatik ukuiluan egon beharko zuela egun batzuetarako.

☐ Astoa lagun bati utzi ziola zama handi bat eramateko.

■ **Kontatu zure hitzez bi astoen pasadizoa.**

4 Harrapatu al zaituzte inoiz gezurretan? Noiz izan zen? Zer gertatu zen?

GOAZEN ABESTERA!



1 Ikasi eta abestu. 🗣️



TXANTXIBIRIN

Txantxibirin, txantxibirin genbiltzanean
Elorrioko kalean,
hamalau atso tronpeta jotzen
zazpi astoren gainean.
Astoak ziren txiki-txikiak;
atsoak, berriz, kristonak!
Nola demontre konpontzen ziren
zazpi astoren gainean?

2 Lotu irudiak eta hitzak. Nolakoak ziren astoak eta atsoak?



oso txikiak

oso handiak



3 Erreparatu abestiari eta idatzi erantzunak.

- Zein dira gehiago, astoak ala atsoak?

- Zertan ari zen atsoak astoen gainean?

- Zure ustez, nola konpontzen ziren, ongi ala gaizki? Zergatik?

Pertsonak deskribatzea



1 Irakurri oharra adi-adi.

Bideoklip baterako neska-mutilak behar ditugu. Dantzari trebea izateaz gain, hautagaiak honelako ezaugarriak izan behar ditu: Ile kizkurra eta argia izan behar du. Sudurra txikia eta polita. Ahoa, berriz, zabala izan behar du, eta hortzak, zuriak. Gainera, begi handiak eta argiak izatea komeni da.

Horrelakoa bazara, idatzi gutuna eta bidali argazkia helbide honetara:

Klip-klap ekoizpenak, 20100 Errenteria

2 Idatzi. Nolako ezaugarriak izan behar ditu bideokliperako hautagaiak?

Ilea:

Sudurra:

Ahoa:

Hortzak:

Begiak:

3 Inguratu. Ume hauetatik nork du bideokliperako itxura aproposena?



4 Aztertu irudia eta markatu ezaugarriak.

ILEA:

☐

lisoa

☐

kizkurra

☐

gorria

☐

gaztain-kolorekoa

BEGIAK:

☐

ilunak

☐

argiak

☐

handiak

☐

txikiak

SUDURRA:

☐

motza

☐

luzea

AHOA:

☐

zabala

☐

txikia

HORTZAK:

☐

zurixkak

☐

distiratsuak



5 Bete gutuna aukeratu dituzun hitzekin.

Kaixxo, Kirmen naiz eta zuen bideoklipean parte hartu nahi dut. Hauek dira nire ezaugarriak:


Ilea eta dut.

Begiak eta ditut.

Nire sudurra da.

Ahoa dut, eta nire hortzak guztiz dira.

Kirmen



1 Inguratu letra larriz hasten diren hitz guztiak eta kopiatu.



Auzoko gizona

Ez dut inoiz ikusi auzoko gizona baino gizon bitxiagorik. Sudurra piper baten modukoa du. Haren belarriak elefante batenak bezain handiak dira. Burua biribil-biribila du. Burusoila da, gainera. Gizon itsusi samarra da, baina oso jatorra.

2 Lotu esaldiak eta kopiatu.

- | | |
|-----------------------------------|---------------------------|
| Auzoko gizonak txakur bat du. ■ | ■ Beldurrezkoa zen. |
| Film bat ikusi nuen telebistan. ■ | ■ Kostaldera joango gara. |
| Asteburuan txangoa egingo dugu. ■ | ■ Pintto du izena. |

3 Markatu gaizki idatzita daudenak eta idatzi ongi azpian.

- | | |
|-----------------------------------|--|
| ☐ lekeitio | ☐ hondartza |
| ☐ itsasoa | ☐ amaia lasa |
| ☐ andoni | ☐ euskal herria |

LETRA LARRIAK

Letra larria erabiltzen da:

- Esaldiaren hasieran.
- Puntuaren atzean.
- Pertsona eta leku berezien izenetan.

HITZA JOLAS

1 Igarkizunak. Idatzi erantzunak. 🗣️

Badira arrautza-tankerakoak,
badira biribilak berez;
batzuek asko pentsatzen dute;
beste batzuek, ezer ez.

*Baietz igarri gorputzeko
atalen izenak!*



Bost seme-alaba ditugu
nik eta anaia bikiak;
bost seme-alaba ditugu
eta neguan jantziak.

Hogeita hamabi harri zuriz
dago inguratuta;
elurra edo eguzkia izan,
beti dago bustita.

Batzuenak meheak
besteenak gizenak,
korrika egiteko
beharrezkoak direnak.

2 Olerkia. Irakurri olerkia eta inguratu errimatzen duten hitzak. 🗣️

Odola gorri,
odola bero,
gure gorputzean
gora eta behera
dabil egunero.

Odola banatuz,
tik eta tak,
ez du atsedetik hartzen
gure bihotzak.
Ezkerreko aldean
dauka motorra
gure gorputzak.

Joxantonio Ormazabal



1 Idatzi zerrendan.

LAU HERRIREN IZENAK

LAU LAGUNEN IZENAK



2 Kopiatu testutxoa, letra larriak behar direnean jarriz.




egunero oso pozik joaten naiz eskolara.
han mikel, nahia eta gainerako lagunekin
elkartzen naiz. andereño maribel oso
jatorra da eta gauza interesgarri asko
irakasten dizkigu. nire ustez, orioko
ikastolako andereño jatorrena da gurea.

3 Entzun *Neska misteriotsua* testua. Idatzi egia ala gezurra den.

- Neska misteriotsua nahiko argala da.
- Mototsa erabiltzen du gehienetan.
- Ilea beltza eta kizkurra du.
- Ona da esku-baloian.
- Ainhoa du izena.



★ 4 Marraztu alboan duzun ikaskidea eta idatzi.



- Nola du izena?

- Nolako itxura du?

5 Aukeratu. Hauetako zein da txilibitua?

